ALTZOKO UDALA

OHIKO PLENORAKO DEIA.

LEKUA: Altzoko Udaletxea
EGUNA: 2026ko irailak 21, astelehena,
ORDUA: arratsaldeko 20:15etan.

G A I - Z E R R E N D A

1.- Aurreko aktaren onespena, hala bada.
2.- Ordenantza Fiskalak:
- Gipuzkoako udalerrietako egonaldi turistikoen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren hasierako onarpena
- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen aldaketak hasieraz onartzea, 2027rako.

3.- Altzoko Udala eta «ETORLUR Gipuzkoako lurra EA» Foru sozietatearen arteko Hitzarmena, Altzoko 1 sektoreko J.U.2 jarduera unitatean prezio hitzartuko babes publikoko 12 etxebizitza eta horien eranskinak eraikitzeko
4.- Hitzarmena, Altzoko Udalaren eta Galtzaundi Tolosaldeko euskaltzaleen elkartearen artekoa, 2026koa.
5.- Hitzarmena, Altzoko Udala eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren artekoa.
6.- Altzoko Udala eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arteko uraren ziklo osoaren kudeaketarako kudeaketa agindua eta hura arautzen duen Hitzarmena.
7.- Mozioaren onespena; Udalerri arnasgune gisa konpromezuak hartuz.
8.- E.J.ren EREIN 2026-en aurkeztuko den proiektua onartzea eta diru laguntza eskatzea.
9.- Andragora (Tolosaldeko emakumeen etxea)-n lau udalerri integratzeko Udal akordioa.
10.- informazioa eta erabakiak; “GI-3620 errepidetik abiatzen den eta katastroko 105. lurzatian dagoen pabiloira iristen den bidea”ren inguruko idatzi eta izapideei buruz.
11.- Denboraldi baterako langileen kontratazioa; 2026-27 ikasturtean liburutegi zerbitzua eskaintzeko eta garbitzailearen lan karga arintzeko.
12.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.
13.-Ordainketak eta diru laguntzak onartzea hala bada eta diruzaintzaren berri ematea.
14.- Eskaerak eta galderak

ALTZOKO UDALA

AKTA

2026ko irailaren 21ean, astelehenean: Osoko Bilkura.

Altzoko Udaletxean, 2026ko irailaren 21ean, astelehenean, arratsaldeko 20:15etan, behean zerrendatzen direnak bertan izanik, Ohiko Osoko Bilkura burutu da.

Lehendakaria: Xabier Olano Jauregi
Zinegotziak: Ainara Garcia Bravo
Xabier Murua Zubizarreta
Enaitz Aizpitarte Murua
Jaione Galarraga
Alaitz Bilbao Garay

Idazkaria: Olga Urbizu Urreaga

AZTERTUTAKO G A I - Z E R R E N D A

1.- Aurreko aktaren onespena, hala bada.

Aho batez onartu da 2026ko uztailaren 20ko Osoko Bilkurako akta eta web orrian informazioa emateko plataforman argitaratzea erabaki da.

2.- ORDENANTZA FISKALAK:

1) Egonaldi turistikoen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren hasierako onarpena

Alkateak EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAren testua aurkeztu du bere onarpena proposatuz.

Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez, hau da, legeak eskatzen duen gehiengoarekin, hasiera batean onartu da eta 30 egunetan jendaurrean egongo da. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten Ordenantza Fiskala automatikoki onartuta gelditukoda erabaki berririk hartu behar izan gabe eta 2027-01-01ean indarrean jarriko da.

2) Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen aldaketak hasieraz onartzea 2027tik aurrerarako

Ordenantza Fiskalen tarifak urtero egokitu izan dira, normalean urteko Euskadiko KPIa igoz. Informatu da 2026-01-01eko Euskadiko KPIa % 2,3 izan dela.

Guzti hau kontutan izanik, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik

sei bertan izanik, aho batez, hau da, legeak eskatzen duen gehiengoarekin, **UDALAK ondorengo erabakia hartu du, 2027-01-01etik aurrerako ondorioekin:**

Lehenengoa: **Orokorrean, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga eta Hondakinen Tasa izan ezik, Altzoko Udalean indarrean dauden Ordenantza Fiskalen tarifa eta kuotak % 2,3 igoko dira (2026-01-01eko Euskadiko KPIa).**

ALTZOKO UDALA

Bigarrena: **Hondakinen Tasari dagokionean tarifen erredakzioa aldatuko da; argitze aldera eta zergabilketako aplikazio informatikoarekin bat etortzeko:**

	€/urteko
1- Konpostatzen duten famili etxebizitzak,	86,50
2- Konpostatzen duten taberna,kafetegi edota estab. komer.,	172,50
3- Taberna, kafetegi edo antzeko establ. komer.,	259,50
4- Industria ez den beste jarduerak ematen diren eraikinak,	89,00
5- Famili etxebizitzak,	129,00
6- Erabilerarik ez duten etxebizitzak,	86,50
7- Txartel berria egitea, aurrekoa galdu edo puskatu delako	5,00
8- Industrigunean edukiontzi txikia (pap, plast, egurra)	130,00
9- Industrigunean edukiontzi txikia (errefusa, RSU)	200,00
10-Industrigunean edukiontzi handia (pap, plast, egurra)	520,00
11-Industrigunean edukiontzi handia (errefusa, RSU)	800,00
Argibideak: Industriguneko tasak kalkulatzeko -Edukiontzi txikia: 240 litrokoa eta 2 gurpilduna -Edukiontzi handia: 1000 litrokoa eta 4 gurpilduna -8,9,10 eta 11 tarifen kalkulua hileroko erabilera edo hustualdien bataz bestekoan oinarrituta egingo da	
12- Edukiontzi gabeko industri lokalak	130,00

Hirugarrena: **Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko Zergaren hobarietako bat igotzea;**

7.- Plaka fotoboltaikoak, eguzki plakak edo antzeko instalazioak, ingurugiroari mesede egiten dioten obra eta instalazioak direnean eta isolamendu lanak energia aurreztapena hobetzen dutenak	%50etik **%75**era

Laugarrena: **Aldaketa hauek hasiera batean onartu dira eta 30 egunetan jendaurrean egongo dira. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten aldaketak automatikoki onartuta gelditukо dira erabaki berririk hartu behar izan gabe eta 2027-01-01ean indarrean jarriko dira.**

3.- Altzoko Udala eta «ETORLUR Gipuzkoako lurra EA» Foru Sozietatearen arteko Hitzarmena, Altzoko 1 sektoreko J.U.2 jarduera unitatean prezio hitzartuko babes publikoko 12 etxebizitza eta horien eranskinak eraikitzeko

Altzoko Udalak testua aztertuta duen arren, Etorlurrek azaldu du ez duela aztertu oraindik eta hurrengorako utzi da puntu hau.

4.- Hitzarmena, Altzoko Udalaren eta Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearen artekoa, 2026koa.

GALTZUNDI, Tolosaldeko euskaltzaleen elkarteak proposatutako 2026rako lankidetza Hitzarmena aztertu da.

ALTZOKO UDALA

Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez, ERABAKI DU:

Lehenengoa: **"HITZARMENA, ALTZOKO UDALAREN ETA GALTZAUNDI TOLOSALDEKO EUSKALTZALEEN ELKARTEAREN ARTEKOA, 2026koa" onartzea eta Alkateari sinatzeko baimena ematea.**

Halaber, bertan hitzartzen den 685 €-ko kopurua Udalak Galtzaundiri ordaintzea erabaki da 2026ko ekintzak burutzeko.

5.- Hitzarmena, Altzoko Udala eta Gipuzkoako botikarien elkargoaren artekoa.

Gizarte Langileak proposatu du "ALTZOKO UDALA ETA GIPUZKOAKO BOTIKARIEN ELKARGOAREN ARTEKO HITZARMENA" onartzea zeinaren bidez herritarrek laguntza izango dute Botikariarengandik botiken kudeaketa egiteko garaian eta doainik.

Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa: **Hitzarmena onartzea eta Alkateari sinatzeko baimena ematea.**

6.- Altzoko Udala eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arteko uraren ziklo osoaren kudeaketarako kudeaketa agindua edo enkargua eta hura arautzen duen Hitzarmena

2006an Altzoko Udala eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren artean Hitzarmena sinatu zen eta 2. aldiz 2016ko urriaren 1ean, bakoitza 10 urtetarako. Hitzarmen hauen arabera Gipuzkoako Ur Kontsortzioak kudeatu du Altzon Uraren ziklo integrala.

2. Hitzarmenaren indarraldia amaitzear dagoenez (2026ko irailaren 30ean) beste 10 urtetarako harremana arautzeko dokumentua prestatu da "Altzoko Udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arteko Uraren Ziklo osoaren kudeaketarako Enkomienda edo kudeaketa Agindua edo Enkargua eta bera arautuko duen Hitzarmena" eta gaurko Osoko Bilkuran aurkeztu da.

Gaia eta dokumentua aztertuta Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa: **2026ko uztailaren 1etik aurrera ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez ematen jarraitzeko erabakia hartzea. Hain zuzen, Altzoko Udala Kontsortzio horretako kide da. Kontsortzioak Gipuzkoako Urak SA sozietatearen bidez emango luke zerbitzu hori. Zerbitzu horren barruan sartzen dira altako eta . bajako sareen kudeaketa, bai uraren hornidurari dagokionez, bai saneamenduari dagokionez ere, bai eta egin beharreko inbertsioak eta hobekuntzak egitea ere.**

Bigarrena: **Uraren ziklo integralaren kudeaketarako sinatu beharreko Gomendioa edo Enkargua eta hura arautzen duen Hitzarmenaren testua onartzea, eta, enkargu horren bidez, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea uraren ziklo integralaren kudeaketa, likidazioa, tasen bilketa eta**

prezioak (zaborra ere sartu ahal izango da bertan, baina oraingoz ez da sartzen), beste 10 urtez 2026ko urriaren 1etik hasita.

Hirugarrena: **Udaleko Alkate-Lehendakari den Xabier Olano Jauregi ahalmena ematea Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin Gomendioa eta hura arautzen duen Hitzarmena sinatzeko.**

7.- Mozioaren onespena; Udalerri arnasgune gisa konpromezuak hartuz.

Euskara zinegotziak UEMAk proposatu duen "ESNATU" deituriko mozioaren testua aurkeztu du.

Mozioa irakurrita Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa: **Mozioa onartzea eta beraz ondorengo konpromezuak hartzea: Altzo udalerria *arnasgunea da*, eta *arnasgune izaten jarrai dezan* urrats sendoak egitea da Altzoko Udalaren helburua. Horretarako, Udalak duen arduratik eta dituen eskumenetatik konpromiso hauek hartzen ditugu:**

- **Erabilera planean onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.**
- **Kontratazio publiko guztietan hizkuntza baldintzak txertatu eta horien jarraipena egitea.**
- **Doako euskalduntzea bermatzea.**
- **Haur eta gaztetxoen aisialdia euskara hutsean programatzea.**
- **Udalen eskumenekoak diren esparruetan euskararen normalizazioan urrats sendoak ematea (ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko ordenantza, terrazetako ordenantza, azoka eta ferietako ordenantza…).**
- **Etorri berriak euskarara gerturatzeko egitasmoetarako bitartekoak areagotzea.**

Bigarrena: **erabakitakoaren berri ematea UEMAri eta herritarrei Iragarki Oholetan jarriz**

8.- E.J.ren EREIN 2026-en aurkeztuko den egitasmoa onartzea eta diru laguntza eskatzea.

Altzoko Udalak **"AISIALDIRAKO BASO-LORATEGI BAT SORTZEA EGILEORREN, 2 poligonoko 118 partzelaren zati batean"** egitasmoa du.

Horretarako aurrekontuak eskatu dira eta honelakoak aurkeztu dira:

1) Proiektuaren erredakzioa
2) Obra
3) Obraren zuzendaritza

Egitasmoaren Memoria gaurko Osoko Bilkuran aurkeztu da eta EJren EREIN 2026 programaren deialdia ere bai.

Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik aho batez ERABAKI DU:

ALTZOKO UDALA

Lehenengoa: **"AISIALDIRAKO BASO-LORATEGI BAT SORTZEA EGILEORREN, 2 poligonoko 118 partzelaren zati batean"** egitasmoa onartzea ondorengo aurrekontuarekin:

1) Proiektuaren erredakzioa 17.393,75
2) Obra 432.218,03
3) Obraren zuzendaritza 11.386,10

Guztira: 460.997,88

Egitasmo honen xedea ondorengoa da: Egileor auzoan aisialdirako baso-lorategi bat eraikitzea da. Altzoko Udalak Aisialdirako, ingurumen-hezkuntzarako eta natura-ondarearen balioa nabarmentzeko Baso-Lorategi Erakusgarri bat sortu nahi du Egileor auzoan, 2 poligonoko 118 partzelaren zati batea.

Bigarrena: **460.997,88 €ko aurrekontua bi ekitaldietan banatzea, obra lanak 2026an hasiko direlarik eta 2027an amaituko direlarik. 2026ko aurrekontuan 30.000 € aurreikusita daude eta gainontzeko 430.997,88 €ak 2027koari eranstea edo inkorporatzea erabaki da lanak esleitzean. Ondorengo moduan :**

1 0000.601.160.00.00 2026	30.000,00 €ko aurreikuspena eginda
1 0000.601.160.00.00 2027	430.997,88 €ko konpromezua

Hirugarrena: **"AISIALDIRAKO BASO-LORATEGI BAT SORTZEA EGILEORREN, 2 poligonoko 118 partzelaren zati batean" Egitasmoa, EREIN 2026" programan aurkeztea eta bere 460.997,88 €-ko aurrekontua finantzatzeko 299.999 €ko diru laguntza eskatzea. Gainontzeko, 160.998,88 €, Altzoko Udalaren funts propioetatik finantzatzeko gaitasuna eta konpromezua hartzea.**

(Lanak egiterako beharrezkoa den lurren eskuratzea permuta bidez ez da EREINen aurkeztuko ez delako subentzionagarria.)

9.- ANDRAGORA (Tolosaldeko Emakumeen Etxea)-n lau udalerri integratzeko udal akordioa.

Tolosaldean 24 Udalen arteko Lankidetza Hitzarmena onartua dago, Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen kudeaketa finantzatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.

Herri-Udal hauek hartzen dute parte: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkilgo Udalak.

Abaltzizketa, Albiztur, Hernialde eta Legorretako Udalek eskatu dute lankidetza-hitzarmen honetan sartzea eta horretarako lankidetza hitzarmenaren aldaketa proposatzen da.

Gaia aztertuta Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa: **4 udalak (Abaltzizketa, Albiztur, Hernialde eta Legorreta) barne hartzeko Lankidetza Hitzarmenaren aldaketa onartzea, Lankidetza Hitzarmenaren 8. klausularen arabera.**

ALTZOKO UDALA

Bigarrena: **Alkateri baimena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.**

10.- Informazioa eta erabakiak; "GI-3620 errepidetik abiatzen den eta katastroko 105. lurzatian dagoen pabiloira iristen den bidea"ren inguruko idatzi eta izapideei buruz.

Udalean lau idatzi sartu dira gai bide honi lotuak; bi epaitegietatik eta beste biak IAM-ek eta JMG-k aurkeztu dituzte.

Guzti hau kontutan izanda, Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, Xabier Murua eta Enaitz Aizpitarteren abstentzioarekin eta gainontzekoen aho batezkotasunez ERABAKI DU:

- Donostiako Kontentzioso 3.Epaitegiak Arrunta 369/2025 prozeduran Udalari jakinarazi dio 232-2026 Autoa, 2026-07-30ekoa, zeinaren bidez JIAT-k jarritako errekurtsoa desestimatzen du Epaitegiak, besteak beste esanez, Udalak berandu bada ere (lan pilaketa argudiatuz) bide horretarako egin dituen obra edo proiektuen berri eman diolako.
  Prozedura honen barruan auto hori 2026-09-16an jaso izana sinatu du Alkateak Udala ordezkatuz.

- Donostiako Kontentziosoko 2. Epaitegiak, Desjabetza anulatu zuen Epaiaren ejekuziorako martxan dagoen 14/2025 Ejekuzio Prozeduran, Udalari eskatzen zaio hilabete batean informatu dezan Epaitegia, ea Jabetza Erregistroari jakinarazi dion bidea Udalaren izenetik kendu dezan eta metalezko bi ate instalatu dituen.
  1) Informazio eskaera honi abokatuak erantzungo dio, besteak beste informatuz; Jabetza Erregistroari bi aldiz ESKATU zaiola Altzoko Udaletxetik desjabetza baliogabetzen duen sententzia betetzeko inskripzioa lehengoratzea, eskaerarekin sententzia eta finken erlazioa aurkeztuz. Lehenengoz 2025eko urriaren 23an eta bigarrenez 2025eko abenduaren 4an aurkeztu ziren eskaerak Tolosako Jabetza Erregistroan.
  2) Dena den, Altzoko Udalak erabaki du 2026-09-21eko Osoko Bilkuran, Tolosako Jabetza Erregistroari ERREKLAMATZEA ea zertan den, Altzoko Udalak bi aldiz egindako eskaera, 2025eko urriaren 23an eta 2025eko abenduaren 04an aurkeztu zirenak hain zuzen ere, hau da, "desjabetza baliogabetzen duen sententzia betetzeko edo ejekutatzeko, 1209 eta 1210 finken inskripzioak lehengoratzea eskatzen duten bi idatziak".
  3) Ateari dagokionez ondorengoak jakinaraziko dizkio Abokatuak Epaitegiari:
     - Atea ireki arazteko eta desmuntatzeko udal erabakia errekurritu zuen Arandiak eta epaitegiak Donostian eta Auzitegiak Bilbon (TSJ) udalari eman zion arrazoia. 253/2021 prozedura arrunta.
     - Bete arazi behar den Epaiak (184/2021 Prozedura arrunta) ez du aipamenik egiten ateei buruz. Gai hori ez zen eztabaida gai izan epaitegian, Arandia berak ez zuen horrelakorik eskatu. Beraz Epaiaren betearazpenak ez du inondik ere ateak jartzea derrigortzen Altzoko Udala.
     - Gainera Ateak ireki arazteko erabakia ez zen izan desjabetzearen ondorio bat. Alderantziz, Arandiak ateak itxi zituen Udalak Okupazio Akta jaso

zuen egun berean, hau da desjabetze prozeduraren barruan, Udalak lurrak okupatzeko zilegitasuna irabazi zuen egunean.
- 184/2021 Auzian ateak itxi baino lehenagoko erabakiak errekurritu ziren, beraz ezinezkoa da betearazpenak beste auzi batean eztabaidatutakoari eragitea.

- IAMek Udal erregistroan 2026-08-24an aurkeztutako idatzia, zeinaren bidez, besteak beste adierazten du "ezin dituela Udalaren 1/2026 Dekretuz baimendutako lanak amaitu"….

  Udalak, Alkateak sinatutako idatzian erantzungo dio IAM-i ondorengo moduan;

  Espedientea ikusita, ageri da obra baimena jaso zuela lanak amaitzeko epe batekin. Jarraian, epearen luzapena eskatu zuela IAM-k eta Udalak eman ziola luzapena. Hasierako epean gehi luzapen horren epe barruan, lanak gauzatu behar dira, aurkeztutako proiektuaren arabera eta jarritako baldintzetan edo lanak amaitzeko epe horren barruan proiektu aldaketa aztertu eta eskatu dezake IAM-k Udaletxean, Udalak aztertu eta aldaketa baimendu dezan, hala badagokio.

  Orain arte egindako instalazioak eta lanak ezin dira erabili jarduera baimena izan arte. Jarduera baimenik gabe instalazioak erabiltzeak arau haustea dakar.

- JMGk Udal erregistroan 2026-09-03an aurkeztutako idatzia, zeinaren bidez Udalari eskatzen dio "neurriak hartzea IAMek jasotako obra baimen dekretuak jartzen dizkion baldintzak bete ditzan eta Berakoetxea ikuilura doan bidean jarri duen traba berria konpon dezan".
  Idatzian aipatzen den Dekretuaren baitan egiten ari diren lanak amaitu gabe daude dirudienez, ez bait da "obra amaiera" izapidetu. Beraz, oraingoz behintzat presakako neurririk ez hartzea hobetsi du udalak aho batez eta horixe jakinaraztea JMGri Alkateak sinatutako idatzian.

11.- Denboraldi baterako langileen kontratazioa; 2026-27 ikasturtean liburutegi zerbitzua eskaintzeko eta garbitzailearen lan karga arintzeko.

Irailean denboraldi baterako lan kontratuak egin ahal izateko bi deialdi egin dira 2026-27 ikasturtea martxan jartzearekin batera Udal zerbitzuak handitzeko beharra gertatu delako:

1) GARBIKETA LANETARAKO LANGILEA: ikastaro asko eskaintzen diren Batzarremuño, Udaletxea eta Haurreskola garbitzeko lana egingo du langileak. Zerbitzuaren iraupena urte betekoa izatea aurreikusten da, baina lan kontratuen legediaren arabera 6 hilabeteko lan kontratoak egin daitezke Deialdi honen arabera astelehenetik ostiralera egunean 4 ordu egingo ditu.

Deialdi honetara 2 pertsona aurkeztu dira: AM Amiano eta C Colmenero.

2) LIBURUTEGI ZERBITZUA ESKAINTZEKO LANGILEA: zerbitzuaren iraupena ikasturtekoa izatea aurreikusten da, baina lan kontratuen legediaren arabera 6 hilabeteko lan

ALTZOKO UDALA

kontratoak egin daitezke. Deialdi honen arabera langileak astelehenetik ostiralera arratsaldeko 4:30etatik 6:30etara eskainiko du zerbitzua.

Deialdi honetara 4 pertsona aurkeztu dira: AM Amiano, I Murua, A Ugartemendia eta H Esteban.

Bi deialdietan izena eman dutenen artean balorazioa egin da deialdian jarritakoak kontutan izanda.

Balorazioak aztertuta Udalak ondorengo ERABAKIAK hartu ditu:,

Lehenengoa: GARBIKETA LANETARAKO LANGILEA **kontratatzeko deialdian ANA MARI AMIANO IRIZAR kontratatuko da, 6 hilabetez, 2026ko urriaren 1ean hasiz. Astelehenetik ostiralera, egunean 4 ordu egingo ditu lan, %53,333ko lan saioan, eta beste eraikinak garbitzeko zerbitzuan ordezkapenak eskatzen direnean lan saioa handitu ahal izango da. Ordainsaria Udalak lanpostu honetarako erabakita daukana**

Bigarrena: **LIBURUTEGI ZERBITZUA ESKAINTZEKO LANGILE gisa IRATI MURUA ARRANZ kontratatuko da, 6 hilabetez, 2026ko urriaren 1ean hasiz. Astelehenetik ostiralera, egunean 2 ordu egingo ditu lan, %26,66ko lan saioan, arratsaldeko 4:30etatik 6:30etara eta oporrak hartzeko garaian Eskolako egutegiarekin bat etorriko da. Ordainsaria Udalak lanpostu honetarako erabakita daukana.**

12.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Alkateak aurreko Plenoaz geroztik erabaki dituen Dekretuen berri eman du, 2026/37tik 2026/41ra, biak barne, Dekretuak irakurriz. Gainontzekoak jakinaren gainean gelditu dira.

13.-Ordainketak eta diru laguntzak onartzea hala bada eta diruzaintzaren berri ematea.

Gaurko Osoko Bilkuran aurkeztu eta onartu diren 3.000 €tik gorako fakturak edo ordainketak ondorengoak dira:

- Altzoko Jaietarako II MUSIK: 4.356 € eta EUSKAL PARRILLA 4.197,27 €.
- Ilarki Elkargoa: 5.192,84 €, Uztaila eta 5.249,85 Abuztuako etxez etxeko zerbitzua.
- Tolosaldea Garatzen SA: 4.324,50 € 2026ko Gestio Plana, bigarren %50a.
- LOATZO: 7.277,76 € 2026-
- ARGYSAN SL: 18.294,27 €, Gimnasiorako ekipamendu berria.

Diru laguntzak:

- Galtzaundi 685 €, 2026rako Hitzarmena betez.

Puntu honekin amaitzeko, informatu da Altzoko Udaletxean, gaurko egunez, 359.326,97 € daudela bi kontuetan; hauetatik 84326,97 € eguneroko ordainketak eta sarrerak egiteko erabiltzen den kontuan eta 275..000 € gordailu kontuan.

14.- Eskari galderak

Ez dira aipatu eta arratsaldeko 21:00etan alkateak bilkurari amaiera eman dio.

Altzon, 2026ko urriaren 1ean

Alkateak o.e.: Xabier Olano Jauregi Idazkariak.

ALTZOKO UDALA

Oharra: Akta hau 2026-10-19ko Osoko Bilkuran onartu zen